



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015EKO MAIATZAREN 14AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Jesus Peñagarikano Labaka

Oihane Sarasola Nosellas

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko maiatzaren 14an udaletxeko bilera-aretoan, eguadiako ordu batak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Jesus Peñagarikano Labaka Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2015KO MARTXOAREN 30EKO AKTAREN ONARPENA

2015ko martxoaren 30ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2015ko martxoaren 30ean eginiko Gobernu Batzarraren akta

BIGARRENA:

2.- 2015EKO MAIATZAREN 4KO EUSKARA BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.1 28 KANALAREN PUBLIZITATE PROPOSAMENA

28 Kanalak 2015 urterako publizitate proposamena egin dio Ibarra udalari. Proposamen horren helburua da udaletxe bakoitzak dituen ekitaldi bereziak iragartzea.

Proposamenak honetan datza: 15 segundoko spotak egitea eta spot horiek 7 egunez emititzea.

8 spot proposatzen dituzte: Izaskungo festak (maiatzean), Gazte festak (ekainean), San Ignazio auzoko festak (uztailean), San Bartolome jaiak (spota+ alkatearen agurra), Mendi duatloia (iraila), Azoka berezia (iraila) eta euskararen eguna (abendua).

8 spot horiek 2.375 €+ BEZ prezioan egingo lituzkete.

2015eko maiatzaren 4ko Euskara Batzordeko irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea 28 Kanalaren proposamena, 2.375 €+ BEZ-eko aurrekontuarekin.

BIGARRENA.- Iragarkia emititu den hilabetean pasatako fakturak 226.335.00.03 partidatik ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri ematea Kontuhartzailtza arloari eta 28 Kanalari jakinaraztea.

2.2 HAZI ETA HEZI PROIEKTUA

Uzturpe ikastolak “Hazi eta Hezi” izeneko proiektua aurkeztu du. Proiektu hau Uzturpe Ikastolak Ibarra herrirako garatu duen proiektu integratzailea da. Hau da bertan topa dezakegun azalpena:

“Herrian hazi eta hezte, haurren garapenaren ikuspegitik behar-beharrezkoa da haurra bere inguru naturalean garatu eta behar bezala bertakotzeko, hain zuzen ere, auzoan eta herrian harremanak egin ditzan, lagun-taldea osa dezan eta Ibarra lotoki bihur ez dadin.

Herri onura sustatzen du eta kultur eragile aktiboa da, hala nola, Guraso eskola, Kultur astea, euskara, kultur ekintzak (Gabonak, Inauteriak, Santa Ageda...) bultzatzen ditu. Gainera, gizarte eragilea ere bada, Hauspoako partaide eta komunikabideetan “Ibarra” promozionatzen duena. Honetaz gain, zubi lana egiten du Kukumiku Haur eskolarekin.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gizartearen garapena bere hiritarren hezkuntzaren kalitatean datza, beronen emankortasuna bermatzeko beste giza eragileen lankidetzaren ezinbestekotzat hartzen dugu. Eragile horien artean familia eta giza ingurua nabarmentzen dira, hauek osatzen dutelako, eskolarekin batera, gure haur eta gazteen erreferentziazko ingurua. Hiru eremu hauen arteko lankidetzaren gero eta beharrezkoagozat deritzogu. Guztiok barne hartzen dituen eta guztiontzat den proiektu eskaini nahi dugu, inor baztertu gabe. “

Proiektu honen aurrekontua 117.941,36 €koa da.

Uzturpe ikastola Ibarra ikastetxe bakarra da, guraso, irakasle, herriko talde eta erakundeekin batera lan egiten duena, 2 urtetik 16 urte bitarteko ikasleen kalitatezko heziketa euskalduna, integrala eta etorkizunera egokitua lantzen duelarik.

2015eko maiatzaren 4ko Euskara Batzordeko irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Ematea Uzturpe ikastolari 117.941,36 euroko diru-laguntza “Hazi eta hezi” proiektua aurrera eramanez.

BIGARRENA.- Kopurua bi ordainalditan ordainduko da, lehena (%70) erabaki onartzen den unean eta bigarrena, gainerako %30, irailean ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Kopuru hori 481.324.00.00 diru partidatik ordainduko da.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri Uzturpe ikastolari eta Kontuhartzailera arloari jakinaraztea.

2.3 BEHATOKIA: 2015KO DIRU-LAGUNTZA

2015eko otsailaren 16an Behatokiak urteroko diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen. Behatokiak euskararen eta euskal hiztunen hizkuntza eskubideen alde lan izugarria egiten du

2015eko maiatzaren 4ko Euskara Batzordeko irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

LEHENA.- Ematea 600 €ko diru-laguntza Behatokiari.

BIGARRENA.- Aipatu diru-laguntza 430.335.00.00 diru-partidatik ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri ematea Behatokiari eta Kontuhartzailletza arloari ematea.

2.4 KONTSEILUA: 2015EKO DIRU-LAGUNTZA

2014ko abenduaren 5ean Kontseiluak urteroko diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen.

Kontseiluak euskararen egiten duen lana kontutan izanik eta 2015eko maiatzaren 4ko Euskara Batzordeko irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Ematea 600 €ko diru-laguntza Kontseiluari.

BIGARRENA.- Aipatu diru-laguntza 430.335.00.00 diru-partidatik ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri ematea Kontseiluari eta Kontuhartzailletza arloari ematea.

3.- EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN ONARPENA

Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17. Artikuluak xedatzen duenez tokiko udalen diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri behar dira.

Euskara arloak ematen dituen diru-laguntzak arautzeko oinarriak prestatu ditu (ikus 1. eranskina).

2015eko maiatzaren 4ko Euskara Batzordeko irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea euskara arloko diru-laguntzak arautzen dituen oinarriak (ikus 1. eranskina).

BIGARRENA.- Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Ibarra Udaleko web orrialdean.

I ERANSKINA

IBARRAKO UDALERRIAN EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

HITZAURREA

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, diru-laguntzetarako orokorrak, 17. artikuluan xedatzen du tokiko udalen diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri beharra dagoela, eta horiek aurrekontua gauzatzeko oinarrien markoan onetsi behar direla, diru-laguntzen ordenantza nagusi baten bidez edo diru-laguntzen hainbat modalitatetarako ordenantza espezifiko baten bidez.

Diru-laguntzak iragarki, norgehiagoka, objektibotasun eta berdintasun printzipioen arabera emango dira, Herri Administrazioa haiei atxikita baitago, besteak beste, sustapen-jarduerak gauzatzekoan.

1. XEDEA.

Oinarri hauen helburua 2015. urtean Ibarra Euskara arloan emango diren eta hurrengo paragrafoan aipatzen diren diru-laguntzen emakida arautzeko oinarri zehatzak ezartzea da.

Oinarri zehatz hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bertan ezarritako arauengatik arautuko dira, bai eta emandako diru-laguntzei aplikatu dakiekeen gainerako indarreko xehapenengatik ere (Diru-laguntzaen 38/2003 Legea eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan onartutako diru-laguntzaen garapen araudia).

2. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN ILDO ETA PROGRAMAK

Diru-laguntza horiek, ondoren zehazten direnak izango dira:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- a) Euskaltegietan eta barnetegietan euskara ikasteko diru-laguntzak.
- b) Establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzak.
- c) Euskarazko web guneei diru-laguntzak.
- d) Unibertsitateko euskarazko udako ikastaroetarako (UEU eta EHU) diru-laguntzak

Diru-laguntza horien oinarriak I, II, III eta IV. eranskinen bitartez arautzen dira, hurrenez hurren.

A.- EUSKALTEGIETAN ETA BARNETEGIETAN EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

1. Diru-laguntzaren xedea.

Diru-laguntza honen xedea da Ibarra bizilagunak euskara ikastaroetan parte hartzera bultzatzea. Hori dela-eta, Ibarra Udalak diru-laguntzak emango dizkie euskaltegi edo barnetegiren batean euskara ikasten ari diren ibararrei.

2. Onuradunak.

Diru-laguntza honen onuradunak izango dira, ikastaroa hasi baino gutxienez sei hilabete lehenagotik Ibarra erroldatutako herritarrak. Ibarra bertan ikasten ari direnek, zein herritik kanpoko euskaltegiren batean euskara ikasten dihardutenek ere, diru-laguntza hau eskatzeko eskubidea izango dute.

3. Bete beharreko baldintzak.

Diru-laguntza eskuratu nahi dutenek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Ibarra erroldatuta egotea, gutxienez ikasturtea hasi baino sei hilabete lehenagotik.
- b) Ikastaroa edo ikasturtea amaitu artean Ibarra erroldatuta jarraitzea.
- c) Euskaltegi edo barnetegiren batean euskara ikastaro batean parte hartzea.
- d) Matrikula ordaindu izana.
- e) Ikastaroa bukatzea eta gutxienezko aprobetxamendua izatea. Hau ikastaroa jaso den Euskaltegiak edo barnetegiak egindako ziurtagiri bidez justifikatuko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- d) Gutxienez, %85eko asistentzia izatea.
- e) Diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitorten erantzulea aurkeztea.

4. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

- 1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.
- 2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.

5. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Diru-laguntza eskaerak Ibarra Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira 2015eko ekainaren 15etik uztailaren 23ko eguerdiko ordu bata arte. Egun horretatik aurrerako eskaera guztiak hurrengo deialdian aurkeztu beharko dira.

Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskaera orria, behar bezala beteta.
- b) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- c) Matrikularen kopia.
- d) Euskaltegiak egindako ziurtagiria. Bertan honako gorabehera hauek zehaztu beharko dira: Eskatzaileak ikastaroa bukatu eta gutxieneko aprobetxamendua izan duen ala ez, eta asistentzia zenbatekoa izan den (ehunekotan).
- e) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik emandako diru-laguntzen gaineko aitortpena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

f) Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria.

Udalak beharrezkoa irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

Diru-laguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta oinarri hauek osotasunean onartzen dituela aitortuko du.

Halaber, eskabidean agertzen diren datu pertsonalak bere baimenarekin hartu direla adieraziko du, eta datu horiei tratamendu automatizatua emateko baimena emango du. Eta era berean, datuak behar bezala baimenduta dauden Udalaren fitxategietan sartzea onartuko du. Horretaz gain, datu horiek erabiltzeko baimena emango du, baldin eta erabilera hori Udalaren kudeaketara mugatzen bada.

Atal honetan aipatutako dokumenturen bat aurkeztu ezean, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio aurkeztutako dokumentazioa zuzen edo osa dezan. Hori horrela egin ezean, eskaerari uko egiten diola uste izango da, eta beste tramiterik egin gabe, artxibatu egingo da.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritzia araberako izaera baitu diru-laguntza honek ere.

6. Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntzak emateko prozedura zuzeneko emakida bidez tramitatuko da.

Diru-laguntzak Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioaren bidez emango dira, eta horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango da.

Gobernu Batzarraren ebazpena, aldez aurretik, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egin duen proposamenean oinarrituko da. Horrela, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak, dagokion proposamena egin aurretik, aurkeztutako diru-laguntza eskabideak aztertuko ditu, Euskara Zerbitzuak egindako txosten teknikoari jarraiki.

7. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntza kopurua ikasturteka izango da (irailetik abuztura).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako Udalak eskatzaile bakoitzari emango dion diru-laguntza gehienez matrikularen %75a izango da (ez materialarena).

Diru-laguntza hauek emateko, guztira, 5.500 euroko izendapena eginda dago, Ibarrako Udalak 2015 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 430.335.00.00 zenbakidun partidaren kontura.

Laguntzetarako aurreikusitako diru izendapena goian adierazitako diru-laguntza emateko bestekoa ez bada, diru-laguntzen onuradunen artean, diru-laguntzetarako den gehienezko zenbateko osoaren banaketa proportzionala egingo da.

8. Onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira diru-laguntza honen onuradunek bete beharko dituzten betebeharrak:

- Diru-laguntza gai izan den jarduera bete-betean burutzea.
- Diru-laguntza zertarako eman den, hartarako erabili behar da.
- Ibarrako Udalari aditzera eman beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, onuradunak beste diru-laguntzaren bat eskuratu al duen.
- Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak orokorrak bete beharko dituzte.

9. Diru-laguntzaren ordainketa.

Tokiko Gobernu Batzarrak dagokion erabakia hartu ostean, diru-laguntzaren %75 (zenbatekoa ordainketa bakarrean) ordainduko da.

Ez da justifikaziorik aurreikusten, diru-laguntza ikasturtea/ikastaroa amaitzerakoan ematen baita, eta eskaera egiteko orduan ikasturtea/ikastaroa eginda edukitzea eskatzen baitaie.

10. Ordainketa aurrerakina

Diru laguntza ematen duen organoak, ordainketa aurrerakinak erabaki ditzake onuradunei emandako diru-laguntzetan, diru-laguntza horien jarduketeki loturiko finantzazio beharretarako.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

11. Emandako diru-laguntzen aldaketak

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gainditzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du eta jasotako dirua itzultzerara behartuko da.

12. Kontrol eta jarraipena.

Oinarri hauetan arautzen den diru-laguntza sistema Ibarra Udaleko kontuhartzailtza departamentuak aurrera eraman dezakeen kontrol finantzarioaren mende egongo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

13. Betebeharrak ez betetzea.

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Diru-laguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

14. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 lege Orokorren itzulketa araubideari.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Diru-laguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

15. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: azaroren 17ko 38/2003 diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena.

16. Interpretazioa.

Ibarrako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak erabakiko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.

17. Ordezko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

B.-ESTABLEZIMENDUETAKO ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

1. Diru-laguntzaren xedea.

Diru-laguntza honen xedea da Ibarrako establezimenduetako irudi linguistikoa euskaraz jartzeko laguntza ematea. Hori dela-eta, Ibarrako Udalak diru-laguntza emango die merkataritza eta ostalaritza establezimenduen kanpoaldean euskara hutsean edo euskarari lehentasuna emanez idatzitako errotulua jarri nahi duten ibarrako ostalari eta merkatariei.

2. Onuradunak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza honen onuradunak izango dira Ibarra merkataritza edo ostalaritza arloko establezimenduetako titularrak, establezimenduen kanpoaldean euskara hutsezko edo euskarari lehentasuna emanaz errotuluren bat jartzen dutenak.

3. Bete beharreko baldintzak.

Diru-laguntza eskuratu nahi dutenek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Establezimendua irekitzeko Udalaren baimena izatea.
- b) Errotulua instalatzeko Udalaren baimena izatea.
- c) Errotulua euskara hutsean edo euskarari lehentasuna emanaz jartzea.
- d) Diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitopen erantzulea aurkeztea.

4. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura, murriztuko da.

5. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Diru-laguntza eskaerak Ibarra Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira 2015eko urriaren 30eko eguerdiko ordu bata arte. Egun horretatik aurrerako eskabide guztiak hurrengo deialdian aurkeztu beharko dira.

Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- a) Eskaera orria, behar bezala beteta.
- b) Titularraren Nortasun Agiri Nazionalaren edo Identifikazio Fiskalerako Kodearen kopia.
- c) Establezimendua irekitzeko eta errotulua jartzeko baimenak, Ibarra Udalak emanak.
- d) Faktura originala eta ordainketa agiriak.
- e) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik emandako diru-laguntzen gaineko aitorpena.
- f) Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria.

Udalak beharrezkoa irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

Diru-laguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta oinarri hauek osotasunean onartzen dituela aitortuko du.

Halaber, eskabidean agertzen diren datu pertsonalak bere baimenarekin hartu direla adieraziko du, eta datu horiei tratamendu automatizatu emateko baimena emango du. Eta era berean, datuak behar bezala baimenduta dauden Udalaren fitxategietan sartzea onartuko du. Horretaz gain, datu horiek erabiltzeko baimena emango du, baldin eta erabilera hori Udalaren kudeaketara mugatzen bada.

Atal honetan aipatutako dokumenturen bat aurkeztu ezean, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio aurkeztutako dokumentazioa zuzen edo osa dezan. Hori horrela egin ezean, eskaerari uko egiten diola uste izango da, eta beste tramiterik egin gabe, artxibatu egingo da.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritzia araberako izaera baitu diru-laguntza honek ere.

6. Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntzak emateko prozedura zuzeneko emakida bidez tramitatuko da.

Diru-laguntzak Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioaren bidez emango dira, eta horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gobernu Batzarraren ebazpena, aldez aurretik, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egin duen proposamenean oinarrituko da. Horrela bada, proposamena egin aurretik, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak aurkeztutako diru-laguntza eskabideak aztertuko ditu, Euskara Zerbitzuak egindako txosten teknikoari jarraiki.

7. Diru-laguntzaren zenbatekoa:

Ibarrako Udalak euskara hutsez jarritako errotuluagatik kostearen %50eko diru-laguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, diru-laguntza ez da 300 eurotik gorakoa izango.

Euskarari lehentasuna emanez jarritako errotuluagatik kostearen %15eko diru-laguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, diru-laguntza ez da 60 eurotik gorakoa izango.

Horretarako, beharrezkoa izango da errotulua euskaraz ondo idatzita egotea, eta hori egiaztatzea Euskara Zerbitzuaren zeregina izango da.

Errotuluetan izena edo izen-abizenak bakarrik agertzen baldin badira, hau da, establezimenduaren jarduerari inolako aipamenik egiten ez baldin bazaio, Udalak ez du diru-laguntzarik emango.

Diru-laguntza hauek emateko, guztira, 600 euroko izendapena eginda dago, Ibarrako Udalak 2015 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 430.335.00.00 zenbakidun partidaren kontura.

Laguntzetarako aurreikusitako diru izendapena goian adierazitako diru-laguntza emateko bestekoa ez bada, diru-laguntzen onuradunen artean, diru-laguntzetarako den gehienezko zenbateko osoaren banaketa proportzionala egingo da.

8. Onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira diru-laguntza honen onuradunek bete beharko dituzten betebeharrak:

- Diru-laguntza gai izan den jarduera bete-betean burutzea.
- Diru-laguntza zertarako eman den, hartarako erabili behar da.
- Ibarrako Udalari adierazi egin beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, beste diru-laguntzaren bat eskuratu al den.
- Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak orokorrak bete beharko dituzte.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

9. Diru-laguntzen ordainketa.

Gobernu Batzarrak dagokion erabakia hartu ostean, diru-laguntzaren %100 ordainduko da.

10. Ordainketa aurrerakina

Diru laguntza ematen duen organoak, ordainketa aurrerakinak erabaki ditzake onuradunei emandako diru-laguntzetan, diru-laguntza horien jarduketei loturiko finantzazio beharretarako.

11. Emandako diru-laguntzen aldaketak

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gainditzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du eta jasotako dirua itzultzera behartuko da.

12. Kontrol eta jarraipena.

Oinarri hauetan arautzen den diru-laguntza sistema Ibarra Udaleko kontuhartzailtza departamentuak aurrera eraman dezakeen kontrol finantzarioaren mende egongo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

13. Betebeharrak ez betetzea.

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Diru-laguntzetarako orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

14. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren itzulketa araubideari.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, diru-laguntzetarako orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

15. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzei buruzko lege Orokorrak ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena.

16. Interpretazioa.

Ibarrako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak erabakiko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.

17. Ordezko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

C.-EUSKARAZKO WEB GUNEEI DIRU-LAGUNTZAK

1. Diru-laguntzaren xedea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza honen xedea da Ibarra kultura, kirol, aisialdi, enpresa, merkataritza eta ostalaritzako edukiak, eta, oro har, publiko zabalari interesgarri gerta dakioken edozein informazio euskaraz eta informazio teknologien bidez hedatzeko diru-laguntzak jasotzeko baldintzak arautzea.

Diru-laguntza hauen xedea da arestian aipatutako edozein alorretako erakunde eskatzaileari gastuak murriztea, Ibarra berezko hizkuntzak dagokion lekua izan dezan hain garrantzitsua den teknologia berrien esparru honetan.

2. Onuradunak.

Diru-laguntza honen onuradunak izango dira, aipatutako esparruetan proiektu edota informazioa euskaraz sustatu eta aurrera eramaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek, baldin eta egoitza sozial eta fiskala Ibarra badute.

3. Bete beharreko baldintzak.

Diru-laguntza eskuratu nahi dutenek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Testuak euskaraz egoki eta zuzen idatzita egon beharko dute.
- b) Eduki horien barruan legetan babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du.
- c) Web gunea egina izatea diru eskaera egiterako eta eskaera orrian helbidea jartzea Udalak ikuskatu ahal izateko.
- d) Diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitopen erantzulea aurkeztea.

4. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura, murriztuko da.

5. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

Diru-laguntza eskaerak Ibarra Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira 2015eko urriaren 30eko eguerdiko ordu bata arte. Egun horretatik aurrerako eskabide guztiak hurrengo deialdian aurkeztu beharko dira.

Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskaera orria, behar bezala beteta.
- b) Titularraren Nortasun Agiri Nazionalaren edo Identifikazio Fiskalerako Kodearen kopia.
- c) Faktura originala eta ordainketa agiriak.
- e) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik emandako diru-laguntzen gaineko aitorpena.
- f) Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria.

Udalak beharrezkoa irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

Diru-laguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta oinarri hauek osotasunean onartzen dituela aitortuko du.

Halaber, eskabidean agertzen diren datu pertsonalak bere baimenarekin hartu direla adieraziko du, eta datu horiei tratamendu automatizatu emateko baimena emango du. Eta era berean, datuak behar bezala baimenduta dauden Udalaren fitxategietan sartzea onartuko du. Horretaz gain, datu horiek erabiltzeko baimena emango du, baldin eta erabilera hori Udalaren kudeaketara mugatzen bada.

Atal honetan aipatutako dokumenturen bat aurkeztu ezean, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio aurkeztutako dokumentazioa zuzen edo osa dezan. Hori horrela egin ezean, eskaerari uko egiten diola uste izango da, eta beste tramiterik egin gabe, artxibatu egingo da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Honako web gune hauek baztertuko dira diru-laguntza emateko orduan:

- Web gune pertsonalak.
- Edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guneak.
- Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa duten web orriak.
- Beren edukietara sartzeko edozein muga jartzen duten web orriak edo zerbitzuaren trukean ordainketa eskatzen dutenak.
- Helburu honexetarako lehendik diru-laguntza jaso duten web orriak.

6. Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka bidez tramitatuko da.

Diru-laguntzak Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioaren bidez emango dira, eta horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango da.

Gobernu Batzarraren ebazpena, aldez aurretik, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egin duen proposamenean oinarrituko da. Horrela bada, proposamena egin aurretik, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak aurkeztutako diru-laguntza eskabideak aztertuko ditu, Euskara Zerbitzuak egindako txosten teknikoari jarraiki.

7. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntza emateko eta zenbatekoa erabakitzeke, alderdi hauek baloratuko dira:

- Gunearen edukiak etengabe eguneratzeko jarriko diren bitartekoak.
- Forma eta diseinu aldetik landua izatea, argia eta erabilerraza.
- Ezintasunak dituztenentzat aproposa izatea.
- Bisitari kopurua.

Ondoko irizpide hauen arabera banatuko dira diru-laguntzak:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Web orria euskara hutsez izateagatik, kostuaren %50eko diru-laguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, diru-laguntza ez da 450,00 eurotik gorakoa izango.
- Web orriko hasiera orria euskara hutsean eta gainontzekoa euskaraz eta beste hizkuntzaren batean izateagatik, kostuaren %40eko diru-laguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, diru-laguntza ez da 360 eurotik gorakoa izango.
- Web orria euskaraz eta beste hizkuntzaren batean izateagatik, kostuaren %20eko diru-laguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, diru-laguntza ez da 180 eurotik gorakoa izango.

Diru-laguntza hauek emateko, guztira, 500 euroko izendapena eginda dago, Ibarra Udalak 2015 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 430.335.00.00 zenbakidun partidaren kontura.

Laguntzetarako aurreikusitako diru izendapena goian adierazitako diru-laguntza emateko bestekoa ez bada, diru-laguntzen onuradunen artean, diru-laguntzetarako den gehienezko zenbateko osoaren banaketa proportzionala egingo da.

8. Onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira diru-laguntza honen onuradunek bete beharko dituzten betebeharrak:

- Diru-laguntza gai izan den jarduera bete-betean burutzea.
- Diru-laguntza zertarako eman den, hartarako erabili behar da.
- Ibarra Udalari adierazi egin beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, beste diru-laguntzaren bat eskuratu al den.
- Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak orokorrak bete beharko dituzte.

9. Diru-laguntzen ordainketa.

Gobernu Batzarrak dagokion erabakia hartu ostean, diru-laguntzaren %100 ordainduko da.

10. Ordainketa aurrerakina

Diru laguntza ematen duen organoak, ordainketa aurrerakinak erabaki ditzake onuradunei emandako diru-laguntzetan, diru-laguntza horien jarduketeki loturiko finantzazio beharretarako.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

11. Emandako diru-laguntzen aldaketak

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gainditzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du eta jasotako dirua itzultzera behartuko da.

12. Kontrol eta jarraipena.

Oinarri hauetan arautzen den diru-laguntza sistema Ibarra Udaleko kontuhartzaitza departamentuak aurrera eraman dezakeen kontrol finantzarioaren mende egongo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

13. Betebeharrak ez betetzea.

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, diru-laguntzetarako orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

14. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren itzulketa araubideari.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Diru-laguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

15. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: azaroren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzei buruzko lege Orokorrak ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena.

16. Interpretazioa.

Ibarrako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak erabakiko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.

17. Ordezko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

D.-UNIBERTSITATEKO EUSKARAZKO UDAKO IKASTAROETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

1. Diru-laguntzaren xedea.

Diru-laguntza honen xedea da Ibarrako bizilagunak Unibertsitateko euskarazko udako ikastaroetan parte hartzera bultzatzea. Hori dela-eta, Ibarrako Udalak diru-laguntzak emango dizkie euskarazko udako ikastaroetan parte hartzen dutenei.

2. Onuradunak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza honen onuradunak izango dira, Ibarren erroldatutako herritarrak.

3. Bete beharreko baldintzak.

Diru-laguntza eskuratu nahi dutenek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Ibarren erroldatuta egotea.
- b) Unibertsitateko euskarazko udako ikastaroren batean parte hartzea.
- c) Ikastaroa euskaraz izatea.
- d) Ikastaroa bukatzea eta gutxienezko aprobetxamendua izatea.
- e) Diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitoren erantzulea aurkeztea.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuen batek emandako diru-laguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, diru-laguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

4. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.
2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura, murriztuko da.

5. Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntza eskaerak Ibarra Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira 2015eko uztailaren 30eko eguerdiko ordu bata arte. Egun horretatik aurrerako eskaera guztiak hurrengo deialdian aurkeztu beharko dira.

Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskaera orria, behar bezala beteta.
- b) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- c) Matrikularen kopia.
- d) Unibertsitateak egindako ziurtagiria. Bertan honako gorabehera hauek zehaztu beharko dira: Eskatzaileak ikastaroa bukatu eta gutxieneko aprobetxamendua izan duen ala ez, eta asistentzia zenbatekoa izan den (ehunekotan).
- e) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik emandako diru-laguntzen gaineko aitorpena.
- f) Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria.

Udalak beharrezkoa irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

Diru-laguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta oinarri hauek osotasunean onartzen dituela aitortuko du. Halaber, eskabidean agertzen diren datu pertsonalak bere baimenarekin hartu direla adieraziko du, eta datu horiei tratamendu automatizatu emateko baimena emango du. Eta era berean, datuak behar bezala baimenduta dauden Udalaren fitxategietan sartzea onartuko du. Horretaz gain, datu horiek erabiltzeko baimena emango du, baldin eta erabilera hori Udalaren kudeaketara mugatzen bada.

Atal honetan aipatutako dokumenturen bat aurkeztu ezean, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio aurkeztutako dokumentazioa zuzen edo osa dezan. Hori horrela egin ezean, eskaerari uko egiten diola uste izango da, eta beste tramiterik egin gabe, artxibatu egingo da.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berekin duen iritzia araberako izaera baitu diru-laguntza honek ere.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6. Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka bidez tramitatuko da.

Diru-laguntzak Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioaren bidez emango dira, eta horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango da.

Gobernu Batzarraren ebazpena, aldez aurretik, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egin duen proposamenean oinarrituko da. Horrela, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak, dagokion proposamena egin aurretik, aurkeztutako diru-laguntza eskabideak aztertuko ditu, Euskara Zerbitzuak egindako txosten teknikoari jarraiki.

7. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Ibarrako Udalak eskatzaile bakoitzari emango dion diru-laguntza gehienez matrikularen %75a izango da.

Diru-laguntza hauek emateko, guztira, 6.000 euroko izendapena eginda dago, Ibarrako Udalak 2016 ekitaldirako indarrean duen aurrekontuko 430.455.01.00 zenbakidun partidaren kontura.

Laguntzetarako aurreikusitako diru izendapena goian adierazitako diru-laguntza emateko bestekoa ez bada, diru-laguntzen onuradunen artean, diru-laguntzetarako den gehieneko zenbateko osoaren banaketa proportzionala egingo da.

8. Onuradunen betebeharrak.

Honako hauek dira diru-laguntza honen onuradunek bete beharko dituzten betebeharrak:

- Diru-laguntza gai izan den jarduera bete-betean burutzea.
- Diru-laguntza zertarako eman den, hartarako erabili behar da.
- Ibarrako Udalari aditzera eman beharko zaio, berak diruz lagundutako jarduera hau burutzeko, onuradunak beste diru-laguntzaren bat eskuratu al duen.
- Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak orokorrak bete beharko dituzte.

9. Diru-laguntzaren ordainketa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Tokiko Gobernu Batzarrak dagokion erabakia hartu ostean, diru-laguntzaren %100 (zenbatekoa ordainketa bakarrean) ordainduko da.

10. Ordainketa aurrerakina

Diru laguntza ematen duen organoak, ordainketa aurrerakinak erabaki ditzake onuradunei emandako diru-laguntzetan, diru-laguntza horien jarduketei loturiko finantzazio beharretarako.

11. Emandako diru-laguntzen aldaketak

Emakidaren baldintzak aldatzeak edo onuradunak aitortu gabeko bestelako diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzeak, batera edo bakarka, lagundutako proiektuaren kostua gainditzen bada, diru-laguntzaren ebazpena aldatzea ekarriko du eta jasotako dirua itzultzera behartuko da.

12. Kontrol eta jarraipena.

Oinarri hauetan arautzen den diru-laguntza sistema Ibarra Udaleko kontuhartzailatza departamentuak aurrera eraman dezakeen kontrol finantzarioaren mende egongo da.

Oinarri hauetako onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan oinarri hauetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

13. Betebeharrak ez betetzea.

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, diru-laguntzetarako orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

14. Emandako diru-laguntzaren itzulketa.

Oinarri hauetako diru-laguntzak lotuta daude azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren itzulketa araubideari.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak diru-laguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Diru-laguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera geldituko balitz, edo eskaeran jaso zenetik guztiz ezberdina baldin bada, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko da.

15. Erantzukizun eta zigor erregimena.

Oinarri hauetako diru-laguntza sistemaren pertsona fisiko eta juridiko onuradunak lege honen mende daude: azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzei buruzko lege Orokorra ezarritako arau-hausteei buruzko erantzukizun eta zigor erregimena.

16. Interpretazioa.

Ibarrako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak erabakiko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.

17. Ordezko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA:

4.-2015EKO MAIATZAREN 13KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN AKTAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

4.1 IKASTOLAKO ESTALKIA ERABERRITZEKO OBRAREN PLEGUAK ONARTZEA

Udal arkitektoak EGI ikastetxeko teilatua eraberritzeko pleguak aurkeztu ditu. Obrak oporraldian egin behar dira.

Pleguak aztertu ondoren, hau da hirigintza batzordeak emaniko

idazkaritza sailak jakinarazten du plegu hauen legezko azterketa burugabe dagoela eta bere ardurapean ez duela hartzen pleguan gerta daitezkeen akats eta erantzunkizunak.

Tokiko Gobernu Batzorde kideek adierazten dute Udal Arkitektoaren oneritzia dutela pleguak eta beregain hartzen dituela teknikariak hortik erortzen diren erantzunkizunak

2015eko maiatzaren 13ko Hirigintza Batzordeko irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea baldintza administratiboen plegua eta agiri osagarriak Egi edo Uzturpe ikastolako eraikina eraberritzeko.

BIGARRENA: Lehiaketaren deialdia egitea iragarki gabeko prozedura negoziatu bidez eta eskaturiko kaudimen irizpideak betetzen dituzten hiru enpresa gutxienez gonbidatzea. Dagokion gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Langileen administrariari.

I ERANSKINA

4.2 EUSKAL HERRIA 18-1KO OBRAREN LIZENTZIA

Obretako lizentzia etxebizitza bat egiteko Euskal Herria 18-1 zk.ko behe solairuan.

2015eko maiatzaren 4an exekuzio proiektua aurkeztu zuten honako agiri hauekin: memoria, segurtasun eta osasun arloko oinarritzko azterlana, hondakinen kudeaketa azterketa eta kalitate kontrolerako programa. Obrak gauzatzeko aurrekontua, 25.673,07€koa da.

Horretaz gain araudi eta eranskinen betetzea aurkezten da. Dokumentazio guztiarekin, 11 plano eta

209



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

baldintza pleguak ere aurkezten dituzte (Arkaitz Lazkano Odriozola aparejadoreak sinatua eta aparejadoreen elkargo ofizialaren ikus-onetsia 2015eko apirilaren 30ko datarekin).

Kontuan hartu da honakoa:

Tokiko Gobernu Batzordeak 2015eko martxoaren 24an etxebizitza erabilera baimendu zuen Euskal Herria 18-1 zk.ko behe solairuan eta promotoreak hirigintza kargak ordaindu zituen 2015eko maiatzaren 4an.

Ikusita udal aparejadorearen aldeko txostena.

2015eko maiatzaren 13ko Hirigintza Batzordeko irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Ematea obretako lizentzia Euskal Herria 18-1 behe oinean etxebizitza bat exekutatzeko obra egiteko. Horretarako baldintza zehatz hauek bete beharko ditu:

Lizentzian jasotako baldintzen arabera obrak burutu ondoren lehen erabilerako lizentzia eskatu beharko da eta horretarako obra amaierako agiria aurkeztuko da honako agiriokin:
lanen memoria deskriptiboa, behin betiko planoak, obra amaierako ziurtagiria eta obraren kitapena eskumeneko teknikoak sinatuta.

Horrez gain abenduaren 9ko 226/2014 Dekretuaren arabera energia efizientziaren ziurtagiria eguneratu beharko da, eta etxebizitza berrirako lortu den energia txartela ere aurkeztuko da.

BIGARRENA: Udalerrian horrelako lanetarako ezarrita dauden baldintzak beteko dira.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Euskal Herria 18-1 behe oineko jabeari.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko ordubiak eta hamar direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.